



Batikano II-garren
Batzarra'ren
agiriak

eleiza
ta
kristau
ez
diran
beste
erlijioak

**ELIZA TA KRISTAU EZ DIRAN
BESTE ERLIJIOAK**

**S. Anton'go Katekesia
Euskal-argitalpenak**

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

- 1. Phedro'ren Alegiak I**
- 2. Martial'en Ziri-Bertsoak I**
- 3. Phedro'ren Alegiak II**
- 4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak**
- 5. Euskal Iztegi Laburra (A)**
- 6. Esopo'ren Alegiak I**
- 7. Agustin Deunaren Eskutitzak I**
- 8. Gurutz-Bidea**
- 9. Phedro'ren Alegiak III**
- 10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)**

Itzulpen-billabideak

Etxebarria'tar Juan Anjel'ek

Batikano II-Garren Batzarraren Agiriak:

Eleiza ta Kristau ez diran Beste Erlilioak

(versión vascongada de D. Juan Ángel Echevarría)

NIHIL OBSTAT
Lic. Jesús Garay Isasi
CENSOR ECCO.

*IMPRIMATUR:
Pablo, Obispo de Bilbao
Bilbao, 9 de mayo de 1966*

1. Nostra aetate, in qua genus humanum in dies arctius unitur et necessitudines inter varios populos augentur, Ecclesia attentius considerat quae sit sua habitudo ad religiones non-christianas. In suo munere unitatem et caritatem inter homines, immo et inter gentes, fovendi ea imprimis hic considerat quae hominibus sunt communia et ad mutuum consortium ducunt.

Una enim communitas sunt omnes gentes, unam habent originem, cum Deus omne genus hominum inhabitate fecerit super universam faciem terrae,¹ unum etiam habent finem ultimum, Deum, cuius providentia ac bonitatis testimonium et consilia salutis ad omnes se extendunt,² donec uniantur electi in Civitate Sancta, quam caritas Dei illuminabit, ubi gentes ambulabunt in lumine eius.³

Homines a variis religionibus responsum exspectant de reconditis condicionis humanae aenigmatibus, quae sicut olim et hodie corda hominum intime commovent: quid sit homo, quis sensus et finis vitae nostrae, quid bonum et quid peccatum, quem ortum habeant dolores et quem fi-

1. Gizadia eguneflik egunera batuagotzen ta errien arteko lokarriak sendoagotzen doazan garai onetan, are arreta andiagoz begiratzen dau Eleizak zelakoa izan bear dauan bere jardukerak, kristau ez diran beste erlijioai buruz. Gizonen eta baita errien arteko batasuna ta maitasuna be sendotzeko dauan eginbearragaitik, gizon guztiai dagokiezan eta alkartasunerako diran gauzak ditu gogoan, batez be.

Erri guztiak bat dira, jatorri berbera dabe, Jaungoikoak gizadi osoa jarri eban lur-gaiñean-eta. Azkenengo elburua be, bardña dabe: Jaungoikoa. Bere ardurapena ta onginaia, bere gaizkakunde-erabagiak, guztiakana zabaltzen dira, aukeratuak Uri Santu aretan, Jaungoiko-argipean eta beronen argitan, batu artean.

Gizonak askotariko erlijioakandik, giza-izatearen barruko ulerkatxentzat erantzuna jaso nai dabe. Len lez, gaur bere, biotzak larritzen dautsoez-eta. Zer dogu gizona?

1. Cfr. Act. 17, 26.

2. Cfr. Sap. 8, 1; Act. 14, 17; Rom. 2, 6-7; 1 Tim. 2, 4.

3. Cfr. Apoc. 21, 23 s.

nem, quae sit via ad veram felicitatem obtinendam, quid mors, iudicium et retributio post mortem, quid demum illud ultimum et ineffabile mysterium quod nostram existentiam amplectitur, ex quo ortum sumimus et quo tendimus.

2. Iam ab antiquo usque ad tempus hodiernum apud diversas gentes invenitur quaedam perceptio illius arcanae virtutis, quae cursui rerum et eventibus vitae humanae presens est, immo aliquando agnitus Summi Numinis vel etiam Patris. Quae perceptio atque agnitus vitam earum intimo sensu religioso penetrant. Religiones vero cum progressu culturae connexae subtilioribus notionibus et lingua magis exculta ad easdem quaestiones respondere satagunt Ita in Hinduismo homines mysterium divinum scrutantur et exprimunt inexhausta foecunditate mythorum et acutis conatibus philosophiae, atque liberationem quaerunt ab angustiis nostrae cnodectionis vel per formas vitae asceticae vel per profundam meditationem, vel per refugium ad Deum cum amore et confidentia. In Buddhismo secundum varias eius formas radicalis insufficientia mundi huius mutabilis agnoscitur et via docetur qua homines animo devoto et confidente, sive statum perfectae liberationis acquirere sive, vel propriis conatibus vel superiore auxilio innixi, ad summam illuminationem pertinere valeant. Sic ceterae quoque religiones, quae per totum mundum inveniuntur, inquietudini cordis hominum variis

Zein bizitzako zentzuna ta elburua? Ona ta obena zertzuk dira? Atsekabeak nundik eta zertarako sortuak dira? Zein ete egizko zorionerako bidea? Eriotza ta eriotzaren ondoko epaia ta saria zer dira? Azkenik, zer ete, gure bizia biltzen dauan azkenengo ta azaldu-eziñezko ezkutuki a? Bertatik dakargu asiera ta bertan dogu amaiera.

2. Antxiña ta gaurko denporetan, errieta, bizitzako joan-etorri ta goraberetan agertzen dan ezkutuzko indar a, batzutan gorengo Jainko ta Aita Goikoa bere bai, somatzten edo dira. Somatze ta ezagutze oneik bizitza guztia euren barneko erlijio-kutsuz betetzen dabe. Kultura aurreratu-ala, erlijioak kezka onei zeatzago ta argiago erantzun gura dabe, euren azalpenetan. Esaterako, Hinduismo-zaleak, Jainko-ezkutuki a sakon ikasi ta mito azkenbakougariz agertu oi dabe. Edo-ta, philosophi saio-zorrotzekin, gure egokeraren estutasunak lasatu gura dabez; dala askesi-bizitzaren jardunakaz, dala gogarte sakonakaz, dala maitasun ta uste osoaz Jaungoikoagana zuzenduaz. Budismo-zaleen artean, bere askotariko eratan, mundu aldakor onen gauzeza aitortu ta bide egokia erakusten da: gizonak gogotsu ta ustetsu, azkatasun osoaren maillara edo, norberaren alegin naiz goiko laguntzaz, argitasun gorrengora eldu daitezan. Era berean, mundu zabalean dagozan beste erlijioak bere, giza-biotzaren kezkai zelan edo

modis occurrere nituntur proponendo vias, doctrinas soili-
cet ac praecepta vitae, necnon ritus sacros.

Ecclesia catholica nihil eorum, quae in his religionibus
vera et sancta sunt, reicit. Sincera cum observantia con-
siderat illos modos agendi et vivendi, illa praecepta et
doctrinas, quae, quamvis ab iis quae ipsa tenet et pro-
ponit in multis discrepent, haud raro referunt tamen ra-
dium illius Veritatis, quae illuminat omnes homines. An-
nuntiat vero et annuntiare tenetur indesinenter Christum,
qui est «via, veritas et vita» (Io 14, 6), in quo homines
plenitudinem vitae religiosae inveniunt, in quo Deus, om-
nia Sibi reconciliavit.⁴

Filios suos igitur hortatur, ut cum prudentia et carita-
te per colloquia et collaborationem cum asseclis aliarum
religionum, fidem et vitam christianam testantes, illa bona
spiritualia et moralia necnon illos valores socio-culturales,
quae apud eos inveniuntur, agnoscant, servent et promo-
veant.

3. Ecclesia cum aestimatione quoque Muslimos res-
picit qui unicum Deum adorant, viventem et subsistentem,
misericordem et omnipotentem, Creatorem caeli et terrae,⁵
homines allocutum, cuius occultis etiam decretis toto ani-
mo se submittere student, sicut Deo se submisit Abraham

4. Cfr. 2 Cor. 5, 18-19.

5. Cf. S. Gregorio VII, Epist. XXI, ad Anzir (Nacir), regem Mau-
ritaniae, P. L. 148, col. 450 sig.

alan erantzun nai dabe, irakaspenak, bizi-arauak eta eliz-
kizunak eskeiniaz.

Eleiza Katolikoak ez dauz ukatzen, erlijio oneitan da-
gezan egia ta donea. Begirunez eta zintzotasunez ikusten
ditu jardukera ta biziera orreik, irakaspen ta agindu orreik,
berak egin ta irakasten dauanetik urrun be urrun egon
arren, sarritan, gizon guztiak argitzen dauzan Egi aren
izpiak daroez euretan-eta.

Kristo aldarrikatzen dau, ta aldarrikatuko ere, Bera
baita «Bidea, egia ta bizitza», ta Beragan aurkituko dabe
gizonak erlijio-bizitzaren betetasuna ta Beragan erakarri
ditu Jaungoikoak gauza guztiak Beretzat.

Orregaitik auxe eskatzen dautse bere semeai: ziur-
ta maiteki, beste erlijioen jarraitzaileckin itz eta lan egi-
ñaz, kristau-bizitzaren ta siñismenaren erakutsi onak emo-
naz, eurakan dituen gogo-zillegiztien alderdi onak aurrera
eroan dagiezala.

3. Ongi-nai bardiañagaz begiratzen dauz Eleizak mu-
slimanak. Jaungoiko bakarra, bizia ta iraunkorra, erru-
kitsua ta alguztiduna, zeru-lurren Egillea, gizonai itz egin-
dakoa, gurtzen dabe-ta.

ad quem fides islamica libenter sese refert. Iesum, quem quidem ut Deum non agnoscant, ut prophetam tamen venerantur, matremque eius virginalem honorant Mariam et aliquando eam devote etiam invocant. Diem insuper iudicii expectant cum Deus omnes homines resuscitatos remunerabit. Exinde vitam moralem aestimant et Deum maxime in oratione, eleemosynis et ieiunio colunt.

Quodsi in decursu saeculorum inter Chistianos et Muslimos non paucae dissensiones et inimicitiae exortae sint, Sacrosancta Synodus omnes exhortatur, ut, praeterita obliscentes, se ad comprehensionem mutuam sincere exerceant et pro omnibus hominibus iustitiam socialiem, bona moralia necnon pacem et libertatem communiter tueantur et promoveant.

4. Mysterium Ecclesiae perscrutans, Sacra haec Synodus meminit vinculi, quo populus Novi Testamenti cum stirpe Abrahae spiritualiter coniunctus est.

Ecclesia enim Christi agnoscit fidei et electionis suae initia iam apud Patriarchas, Moysen et Prophetas, iuxta salutare Dei mysterium, inveniri. Confitetur omnes Christifideles, Abrahae filios secundum fidem,⁶ in eiusdem Patriarchae vocatione includi et salutem Ecclesiae in populi electi exitu de terra servitutis mystice praesignari. Quar

Jaungoiko orren ezkutuzko erabagien aurrean, biotz osoz makurtzen dira, Abraham Jaungoikoaren aurrean makurtu zan legez. Musulmanen siñismena, bada, Abraham'i gogo onez lotua dager. Josu, Jaungoikotzat artu ez arren, Igarle-moduan gurtzen dabe. Andra María, Aren Ama Garbia, deduz darabillo, noizean bein jaieratsuki deituaz. Berbiztutako gizon guztiak Jaungoikoak sarituko dauzan egunaren itxaropena bere ba-dabe. Orretara ezkerro, Moral-bizitza aintzat artu ta Jaungoikoari dedu ta lotsa agertzen dautsoe, batez be, otoitzez, limosnaz eta barau egiñaz.

Gizaldiak joan, gizaldiak etorri, kristau ta musulmanak sarritan alkar artu ezinda, muturka, ibilli ba'dira, Batzar Done onek guztioi egiten dautsoe eske bardiña: joanak joan, saia daitezala zintzoki alkar aitzen, ta, alkar arturik, gizarteko zuzentasuna, Zillegiztiaren onak, eta gizon guztientzako bakea ta azkatasuna zainduten ta sendotzen.

4. Batzar Done onek, Eleizaren ezkutukian sakondurik, Itun Barriko erria Abraham'en leiñuagaz batzen dabent lokarriak gogora dakarz.

Kristo'ren Eleizak, bada, ontzat artzen dau bere siñismen ta aukeratzearen asierak Aita-leengan, Moises'engan eta Igarleengan datzazala, Jaungoikoaren salbazio-

6. Cfr. Gaal. 3, 7.

nequit Ecclesia oblivisci se per populum illum, quocum Deus ex ineffabili misericordia sua Antiquum Foedus inire dignatus est, Revelationem Veteris Testamenti accepisse et nutriri radice bonae olivae, in quam inserti sut rami oleastri Gentium.⁷ Credit enim Ecclesia Christum, Pacem nostram, per crucem Iudeos et Gentes reconciliasse et utraque in Semetipso fecisse unum.⁸

Semper quoque prae oculis habet Ecclesia verba Apostoli Pauli de cognatis eius, «quorum adoptio est filiorum et gloria et testamentum et legislatio et obsequium et promissa, quorum patres et ex quibus est Christus secundum carnem» (Rom. 9, 4-5), filius Mariae Virginis. Recordatur etiam ex populo iudaico natos esse Apostolos, Ecclesiae fundamenta et columnas, atque plurimos illos primos discipulos, qui Evangelium Christi mundo annuntiaverunt.

Teste Sacra Scriptura, Ierusalem tempues visitationis suae non cognovit,⁹ atque Iudei magna parte Evangelium non acceperunt, immo non pauci diffusioni eius se opposuerunt.¹⁰ Nihilominus, secundum Apostolum, Iudei Deo, cuius dona et vocatio sine poenitentia sunt, adhuc carissimi manent propter patres.¹¹ Una cum Prophetis

naiari egokionez. Baita au ere ontzat dauka: Kristau guztiak, siñismenez Abraham'en seme diranak, Aita-len beraren deikide dirala ta Eleizaren gaizkakundea, erri aukeratuaren morroi-lurretik urtekeran adierazia dala, mistika-eraz. Beraz, Eleizak ezin leike aztu Itun Zarreko agerpena erri aren bidez artu dauala. Erri agaz, izan be, Jaungoikoak bere erruki andiz Antxiñako Alkartasuna egin eban. Orobat, ezin leike aztu, basa-oliondoaren adarrak, au da, siñisbakoak, mendu diran oliondo onaren sustrieten artzen dauala bere janaria. Orra Eleizaren siñistea: gure pakea dan Kristo'k, gurutzaren bidez judeguak eta siñisbakoak batu ebazan, biokaz bat egiñaz. Beti ere ditu Eleizak begi-aurrean Paul Bidaliaren itzak, bere senideai buruz: «aienak dira semekunza, aintza, ituna, legea, yaurespidea, ta agintzak. Aienak arbasoak, aiengandik da Kristo aragi aldefik» (Erromakoei, 9, 4-5) Andra Mariaren semea. Ondo gogoan dauka Bidaliak, Eleizaren oñiarri ta zutabe, jidueneandik jaio zirala, Munduari Kristo'ren Barri Ona araldu eutsoen Jenengo ikasle areitatzik beste askoren antzera.

Idazteunak daitor: Jerusalem'ek ez eban ezagutu bere ikertaldia, ta judegu askok eta askok ez eben Barri Ona onartu; are geiago, euretatik asko Barri Onaren zabal-

7. Cfr. Rom. 11, 17-24.

8. Cfr. Eph. 2, 14-16.

9. Cfr. Luc. 19, 44.

10. Cfr. Rom. 11, 28.

11. Cfr. Rom. 11, 28-29; cfr. Const. Dogm. *Lumen Gentium*: AAS 57, 1965, p. 20.

codemque Apostolo Ecclesia diem Deo soli notum exspectat, quo populi omnes una voce Dominum invocabunt et «servient ei humero uno» (Soph. 3,9).¹²

Cum igitur adeo magnum sit patrimonium Spirituale Christianis et Iudaeis commune, Sacra haec Synodus mutuam utriusque cognitionem et aestimationem, quae prae-sertim studiis biblicis et theologicis atque fraternalis colloquiis obtinetur, fovere vult et commendare.

Etsi auctoritates Iudeorum cum suis asseclis mortem Christi urserunt,¹³ tamen ea quae in passione Eius perpetrata sunt nec omnibus indistincte Iudeis tunc viventibus, nec Iudeis hodiernis imputari possunt. Licet autem Ecclesia sit novus populus Dei, Iudei tamen neque ut a Deo reprobati neque ut maledicti exhibeantur, quasi hoc ex Sacris Litteris sequatur. Ideo curent omnes ne in catechesi et in Verbi Dei praedicatione habenda quidquam doceant, quod cum veritate evangelica et spiritu Christi non congruat.

Praeterea, Ecclesia, quae omnes persecutions in quosvis homines reprobavit, memor communis cum Iudeis patrimonii, nec rationibus politicis, sed religiosa caritate evangelica impulsa, odia, persecutions, antisemitismi ma-

12. Cfr. Is. 66, 23; Ps. 65, 4; Rom. 11, 11-32.

13. Cf. Jn., 19,6.

kundeari jarki yakozan. Alabaiña, Bidaliaren esanetara, gurasoakaitik maite ditu oraindik ere juduak Jaungoikoak; ez da damutzen deia ta emariak egiñaz. Igarleakaz eta Bidaliagaz batera, Jaungoikoarentzat bakarrik ezaguna dan egunaren zain dago Eleiza. Egun aretan, erri guztiak Jaungoikoari abo batez dei egingo dautsoe, ta «bat egiñik, motroi egingo dautsoe» (Sophonias, 3, 9)

Kristau-judeguei batean dagokiezan gogo-ondasunak andia dira-ta, Batzar Done onek auxe gura dau: Idazteun ta Teoloji-ikasketakaz eta anaitasuneko alkarrizketakaz, batez be, lortzen dan alkar-ezagutzea ta maitatzea sortarazi ta zabalaraztea.

Juduen agintariak euron jarraitzaileakaz batera, Kristo'ren eriotza eskatu ba'eben be, Aren nekaldian jazorikoa ezin leikioe bardin-bardin egotzi orduan bizi ziran judu guztiai, ezta gaur bizi diran guztiai be. Eleiza Jaungoikoaren erri barria dan arren, Judeguak ez beitez agertu Jaungoikoak gaitzetsi ta madarikatuak bezela, Idazteunetik ataratako gauza bai'litzan. Arduratu bediz guztiak, kristau-irakasbidean eta Jaunaren itzaren azalpenetan, Barrri Onaren egiaz eta Kristo'ren gogoaz bat ez datorrenik erakutsi ez dagien.

Gaiñera, Eleizak tamal andia artzen dau edozein ga-raian ta edonorengandik juduen aurka sortutako gorroto,

nifestationes, quovis tempore et a quibusvis in Iudeos habita, deplorat.

Ceterum Christus, uti semper tenuit et tenet Ecclesia, propter peccata omnium hominum voluntarie passionem suam et mortem immensa caritate obiit, ut omnes salutem consequantur. Ecclesiae praedicantis ergo est annuntiare crucem Christi tamquam signum universalis Dei amoris et fontem omnis gratiae.

5. Nequimus vero Deum omnium Patrem invocare, si erga quosdam homines, ad imaginem Dei creatos, fraterne nos gerere renuiimus. Habitudo hominis ad Deum Patrem et habitudo hominis ad homines fratres adeo connectuntur, ut Scriptura dicat: «qui non diligit, non novit Deum» (I IO 4, 8).

Fundamentum ergo tollitur omni theoriae vel praxi quae inter hominem et hominem, inter gentem et gentem, discrimen quoad humanam dignitatem et iura exinde dimanantia inducit.

Ecclesia igitur quamvis hominum discriminationem aut vexationem stirpis vel coloris, condicionis vel religiosis causa factam tamquam a Christi mente alienam, reprobat. Proinde, Christifideles Sacra Synodus, vestigia Sanctorum Apostolorum Petri et Pauli premens, ardenter

jazarpen eta semiten aurkako azalkeriakaitik. Gizonen aurkako edozein jazarpen txarresten dauan Eleiza, ba-daki juduekaz dauan zer ikusi ta artu-emona, ez dabil orretan politika-arrazoietan sarturik, Barri-Onatik datorren erlijiozko maitasunean oiñarriturik baiño.

Orrezaz gaiñera, Eleiza beti izan da uste orretan, ta izango bere bai: Kristo'k bere oldez nekaldia ta eriotza jasan ebazan maitasunaren maitasunaz gizon guztien alde, guztiak betiko osasuna jadetsi dagien. Beraz, bere irakaspenetan auxe dagokio Eleizari: Kristo'ren gurutzta Jaungoikoaren guztienganako maitasunaren ezaugarritzat eta esker guztien sorburutzat agertzea.

5. Jaungoikoaren irudira egindako gizon batagaz edo besteagaz, anai-moduan jokatu gura ez ba'dogu, ezin geinkioz guztion Aita dan Jaungoikoari deirik egin.

Jaungoiko Aitagazko ta beste gizonakazko gizonaren lokarriak alakoak dira, «maite ez dauanak, ez dau Juan-goikoa ezagutu (I. Jn. 4, 8)», Idazteunak diñoanez.

Olan, gizonen eta errien artean, giza-anditasunari ta beronengandik sortutako eskubideai dagokiezanetan bere-izkuntzetan dabiltzan aburubide ta jardumbideai oiña-rrriak kentzen yakez.

Arraza, kolore, giza-mail edo erlijioa dirala-ta egin-dako edozein bereizkuntza naiz bidegabekeria Kristoren naimenaz besterakoa da-ta, Elizak gaitzetsia da.

obsecrat ut «conversationem inter gentes habentes bonam» (1 Pert. 2, 12), si fieri potest, quod in eis est cum omnibus hominibus pacem habeant,¹⁴ ita ut vere sint filii Patris qui in caelis est.¹⁵

Haec omnia et singula quae in hac Declaratione edicta sunt, placuerunt Patribus. Et Nos, Apostolica a Christo Nobis tradita potestate, illa, una cum Venerabilibus Patribus, in Spiritu Sancto approbamus, decernimus ac statuimus et quae ita synodaliter sunt ad Dei gloriam promulgari iubemus.

Romae, apud S. Petrum, die XXVIII mensis Octobris anno MCMLXV.

Ego PAULUS Catholicae Ecclesiae Episcopus.

Sequuntur Patrum subsignationes.

Ori dala-ta, Batzar Doneak Paul eta Kepa Bidalien urratsai jarraiturik, eskabide bero au egiten dautse Eliztarrai: «Gizonen aurrean zintzo jokatuaz» (1, Petr. 2, 12), al dan bestean, euren aldetik, gizon guztiakaz bakean bizi daitezela, Zeruko Aitaren egiazko semeak izan daitzan.

Agiri onetako gai guztiak, banan-banan, Gurasoak onartuak dira. Eta guk, Kristo'k emondako Bidali-almenaz, Guraso gurgarriakaz batera ta Gogo Deunak eraginda, aintzat artu, erabagi ta sendotu egiten doguz. Gaiñera, Batzarrean artutako erabagiok, Jaungoikoaren aintzarako, zabal egitea agintzen dogu.

Erroma'n, Petri Deunarenean, 1965'ko Urriaren 28'ganean.

Eleiza Katolikoaren Gotzaiña nazan Paul.

Ondoren, Gurasoen izenak datozi.

14. Cfr. Rom., 12, 18.
15. Cfr. Matth., 5, 45.

ERABILLITAKO GAIAK

<u>Izenak</u>	<u>Orrialdeak</u>
Azkatasuna	11
Bereizkuntzak	17
Budismo	7
Giza-izatearen illunak . . .	5-7
Gizarte-zuzenbidea	11
Gurutzea	17
Hinduismo	7
Islamismo	11
Jaungoikoa (Guztioin Aita) .	17
Jazarpenak	17
Josu	11-17
Juduak	15
Pakea	11